

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Defizit publikoa murrizteko 2011n ahalegin handiena egin zuen autonomia erkidegoa izan zen Nafarroa

*Miranda kontseilariak Nafarroako Gobernuak aurkeztutako datuen artean eta Estatuak Foru Erkidegoari ematen dizkion datuen artean dauden aldeak azaldu ditu prentsaurrekoan*

Miércoles, 29 de febrero de 2012

Defizit publikoa murrizteko iaz ahalegin handiena egin zuen autonomia erkidegoa izan zen Nafarroa. Zehazki, Foru Erkidegoak 2010 eko % 3,11tik 2011n Estatuak ematen dion % 1,89ra pasatzea lortu zuen. Horrek esan nahi du urtebetean Nafarroak bere defizita % 39an murriztu duela; beste autonomia erkidegoen ahalegina, berriz, % 0koa izan zen eta Estatuak Administrazio Orokorrena % 10,8koa.

Hala azaldu du gaur Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla; hala ere, adierazi du Nafarroako Gobernuak ez dagoela ados iragan astelehenean Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministro Cristóbal Montorok jendaurrean emandako behin-behineko datuekin; izan ere, Nafarroako Gobernuak Pirinioetako Autobia sartzeari aurkeztutakoekin ez datoz bat.

Bestalde, Mirandak azaldu du zer alde dagoen aurrekontu-ekitaldiaren itxierari buruzko datuen artean eta iragan otsailaren 1ean Foru Gobernuak ezagutzera eman zuen defizitaren helburua betetzearen artean. Pirinioetako Autobia kontatzeko kasuan, Nafarroako Gobernuak % -1,7ko defizita kalkulatu zuen Foru Erkidegorako. Nolanahi ere, Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak kopuru hori % -1,89ra arte igo zuen.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak azaldu du aldea dagoela, funtsean, Pirinioetako Autobia kontabilizatzeko orduan; Estatuak Esku Hartzaitza Nagusiak (IGAE) guztira 117 milioiko balioa ematen dio hari eta Nafarroako Gobernuak, berriz, 2011rako 100 milioi euro aurreikusten dizkio. Bestalde, IGAEk Nafarroarako 18.502 milioi euroko BPG aplikatu dio, ministerio horrek apirilean Ekonomia eta Finantza Berrerekatze Planean erabili zuen 19.079 milioi euroren aurrean. Aldaketa hori estatistika-metodologiaren arrazoiei dagokie. Arrazoi horiei guztira garrantzi gutxiagoko eragina duen kontabilitate nazionalen beste doikuntza batzuk erantsi behar zaizkie.

Kontseilariak gogora ekarri du, ministerioak ez duela oraindik bere iritzia eman Pirinioetako Autobiaren kontaketa inguruan dagoen gatazkari buruz.